

# ZUMAIA: GERRAREN HASIERA



1936ko gerra garaian Zumaian izandako gertaera batzuk batu ditugu ibilbide honetan.


Gerra mendebaldetik sartu zen Zumaia eta hainbat pasarte bildu ditugu, errekiatzeak, karlista eta falangisten presentzia, kontserba fabriketako jabeen ihesa, itsasoruntz ihes egin beharra... eta bestelako kontuak, lekukoek beraiek kontatuta.

**Gerrako Ahotsak**  
proiektuan jasotako  
ahozko testigantzetan oinarritua.

Map data: ©2023 Google / Badihardugu Euskara Elkarte



testigantza eta  
informazio gehiago  
online mapan



## 1 KONTSERBERETATIK JANARIA HARTZEN



Lekukoa: Irene Yeregi

Gerra denboran, Ortizeneko kontserba-fabrikan bakailao asko omen zegoen lehortzen. Nagusiek aurrera joan behar izan zuten, nazionalistak ziren eta. Ateak irekita gelditzean, jendea bakailaoa hartzera joan zen.

## 2 ERREKISATUTAKO SAXOFOIA BERRESKURATZEN



Lekukoa: Maria Antonia Goikoetxea

Aitaren arrebak josteko makina zeukan eta nazionalak sartu zirenean txapelak brodatzeko agindu zioten. Aitaren saxofoiarekin tabernaz-taberna ibili omen ziren; osaba, mutikoa, atzetik jarraitzen ibili zen eta mozkortu zirenean saxofoia korrika etxera bueltan eraman zuen.

## 3 BABESLEKUA SESTERONEKUAN



Lekukoa: Irene Yeregi

Sesteroaneko dendaren azpian, soto bat zegoen; eta, sirena jotzen zutenean, denak hara joaten ziren, bonbatatik babesteko. Moilan bota zituzten bonba batzuk. Karabineroen etxola tiroz beteta egon zen. Hala ere, ez zen hainbesterako izan.

## 4 GOIKO PLAZAN SOLDADUAK



Lekukoa: Irene Yeregi

Soldaduak Goiko plazan egon ziren. Euren osabak baserri batera ihes egin zuen badaezpada, eta izebak kapitain bat izan zuen etxean. Irene kapitainarekin joaten zen kuartelera olio bila; izan ere, kapitainari baratxuri-zopa asko gustatu zitzaion, eta hura jartzeagatik.

## 5 GERRA HASTEAN, UDALETXEAREN JABE EGIN ZIREN



Lekukoa: Akelino Elosua

Borroka handia zegoen UGT, sozialista eta beste alderdien artean; ikusten zen gerra bazetorrela. Gerra hasi zela jakin zutenean, udaletxearen jabe egin ziren eta herriko karlista guztiak atxilotu zituzten, 31 gutzira. Udaletzeko goiko saloian eduki zituzten preso.

## 6 IRRATIA ENTZUTEN ZUTELAKO, ETXEA MIATZERA



Lekukoa: Maria Jesus Manterola

Bere osabak munduari bira eman zion eta kanpotik gauza asko ekarri zituen, tartean baita irratia ere. 'Radio Pirenaica' n entzuten zuten. Norbaitek salatu egiten zituen, antza denez, eta sarritan etortzen zitzaizkien etxea miatzera. Ganbaran gordeta edukitzen zuten irratia.

## 7 KARLISTEK DENA ERREKISATU ZUTEN



Lekukoa: Irene Yeregi

Karlistak sartu zirenean irratia kendu zieten. Batzokia egondako eraikina eta gaur egun talasoterapia dagoena ere goitik behera errekisatu omen zituzten.

## 8 ITSASONTZIZ SANTOÑARA



Lekukoa: Akelino Elosua

Unerik gogorrena herria ebakatu behar izan zutenekoa izan omen zen berarentzat, gurasoak Zumaian geratu zirelako. Itsasontzia prestatu eta herriko jende askok alde egin zuen. Ontzigitzari esker, Santoñarekin harremana zuten eta familia asko hara joan ziren.

## ★ GERRA OIKIATIK SARTU ZEN



Lekukoa: Bartolo Etxabe

Mendi gaineratik erreketek azaldu omen ziren lehenbizi. Pasaeran baserrietan jatekoa lapurtzen zuten. Gogoan du nola komandanteak pistolarekin mehatxatuta eduki zuen Oikiako apaiza, frontoi parean. Azkenean, eraman egin zuten. Apaizak pistola utzi omen zuen elizako aldairearen atzean eta sakristauak lurperatu egin zuen. Berak nolabait enteratu eta pistola lurpetik atera eta urteetan etxean eduki zuen gordeta.



testigantzak entzun

